

## Eztiaz

**E**rauntzen galera misterioitsuak mundu guztian zehar gertatu dira azken urteetan. Gaur arte, erie globalizatuaren heriotza masiboak ez du azalpenik. Edo azalpen posible anitz ditu. Xehetasunetan sartu gabe: erleen gaixotasun bitxia gizakiak naturarekin duen desorekaren beste sintoma bat da.

Tankera honetako loturen jakinaren gainean dagoenak, asmo politiko zolia sumatuko du, batez ere poesiaz eta emozioz betetako filmean ere. Semih Kaplanoglu turkiarraren *Ba!* (Eztia) desagertzeko zorian dauden Itaso Beltzeko kostaldeko baso eta haranetan filmatuta dago. Basoan erlauntzak dituen pertsonaiarentzat, ezta faltan egoten hasten denean, existentziaren oinarria da kolokan jartzen dena. Eta ezinbestean agertzen da alegoria.

Basoan sartzen gara erlezainarekin eta haren semearekin, eta bion arteko harremana bizi dugu umearen ikuspuntutik. Umearen barne mundu sakon eta ilunetik. Denbora eskatzen duten irudiak deskubritzen ditugu hauraren egunerokoan; Ilargiaren isla urez betetako balde batean mugitzen; umearen atzarmarrak miniaturazko ilargiarekin jolasen. Gure zentzumenak zorrotzu dira, eta pantailako munduan murgilduta gaude, basoak beste baten ametsean sartzeko aukera eman baligu bezala. Hori da azken batean zinema onak eskaintzen duen aukera. Gidoiak ez diotenean inon hortzik erakutsi behar, muntaiak ez duenean abiadura eta efektuen bitarteko misrespena bilatzen eta istorioa ez denean norabide batean estutzen, orduan, irudiek eta, beraz, zinematik, hartzen dute indarra.

Hauraren —haurren?— barne munduaren eta kanpoko munduaren arteko danbatekoa, itzela da.



**Larrepetit**  
Irati Elorrieta

Basoan sartzen gara erlezainarekin eta haren semearekin, eta bion arteko harremana bizi dugu umearen ikuspuntutik

### Hemeroteka

## Frantziako grebak Juanjo Olasagarre › Deia

Inbidiaz begiratu dut aste honetan Frantzian gertatzen ari dena. Bederatzigarren greba aldia eta gauzak aurrera jarraitzen du. Greba aldi matxinoa, gainera, jendea ez baita etxean gelditzen. Ez, kalera jotzen du protesta adieraztera. Erretiroa 60 urtetatik 62 urtetara igo nahi dutela eta jo du jendeak kaleetara. Baduzue aditzerarik? Ez du hilabete egiten hemen ere antzeko arrazoi bategatik greba egin genduela, egun bakarreko greba exkaxa, Euskal Herrian exkaxago gelditu zena, badakizue bereziak izanik, gutako batzuk greba ekainaren 28 egun bainuena. Egin ere, 65 urtetik 67 urtetara igo digutelako erretiroa hartzeko adina.

Hemen, Frantzian ez bezala, ez zen, gainera, batera eztabaida sozialik izan eta zeharka bezala so egin zitzaion sindikatuen del hari. Zergatik portatzen gara horren ezberdin espainolak eta frantsesak horrelako afera baten aurrean? Gure demokrazia berria eta errota gabea denez gure hiritartasuna axalekoa da eta, zentzu horretan, kolektibotasuna deitzen den horrekiko oso arduragutxi dugulako?

Aberats berrien moduan bizi izan gaita jakin izan dugulako betidanik eta, horrenbestez, bagenekien horrelako zerbaitei errotiko zela eta, geroz, etorri zaigun krisia onarturik genuen aspaldi? Guda Zibileko traumak garbitu gabe eta Transizio epel baten ondoren politikak ezertarako ez duela balio uste dugulako, izan ere, Franko ohean hil zen eta haren oinordekoek oldarkor aritzen dira egunero-egunero iritzi publikoak egiten? Zaila zelako ezkerreko gobernu bati sindikatuek, ezkerrekoak suposatzen da, konbokatutako greba batekin muturrean ematea? Frantzia gurea baino estatu indartsuagoa delako bai gobernu aldetik bai populazio aldetik, eta, beraz, hiritarrek gobernuaren betebeharrak argiago dituztelako?

Arazoiek ihes egiten didate... Kontuak kontu argi dago Espainiako hiritarrok egin ez genduen egiten ari direla hiritar frantsesak. Aberats berri pobretuak? Utziak? Eszeptikoak? Hurrengo errenkarnazioan frantsesa izatea planteatzen ari naiz.

### Zuzendariari

**BERRIAK** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —españoak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAK** mوزهko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herna adierazita: Berna, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: irrtzia@berria.info.

## Elgarhi Nayem Foidal Mohamed Suedi, guk ez zaitugu ahazten

Zenbat odol isuri behar da espainiar Estatuak begiak ireki ditzan? Zenbat Elgarhi Nayem Foidal Mohamed Suedi lurperatu behar ditugu Nazioarteko Komunitateari bihotza hunkitzeko? Erotu al gara denak, edo zer da gertatzen ari dena pailazo herri honetan?

Hamalau urteko mutil kozkor bat hil da marokoar poliziaren eskuetan, eta inori ez dio dardarizkoak ematen. Hamalau urteko mutiko batez ari gara hitz egiten, ez al du ezer balio gazte honen biziak?

Nayem Foidal marokoar poliziak eraila izan da, eta oraindik bada jendea lotara lasai eta barne korapilorik gabe doana. Barka, nor edo nor gaizki sentitzen bada hau entzutean, baina pertsona horiek izen bat eta bakarra dute: hiltzaileak. Ez du inporta nor zuen arma eskuetan gazte honek zuen eskubide bakarra, bizitzeko eskubidea, lapurtu baitzioten; ez du inporta, arma hori esku batek baino gehiagok eusten dute eta.

Argi dago zenbaitzuentzat ez duela inporta nor jartzen den beraien jomagan, berdin zaie agure, gizon, emakume... izatea, berdin zaie! Garrantzitsuena sahararren gatazka eta momentu hauetan Aaiuneko kanpamenduan bizi den izualdia ez ezagutzea da —ez dezagun ahanztu zauritu gehiago daudela eta beste baten heriotzaz hitz egiten ari dela—, finean saharar herriak bizi duen errepresioa ezkutatu eta ahaztuan erortzea.

Baina Ya-lah Gazte Ekimenetik gure indar guztiz salatu nahi dugu saharar herriak urriaren 9tik, kanpamendua altxatzea erabaki zutenetik, jasaten ari diren bortizkeria. Bigarren mailako hiritarrak dira beraien lurretan, hezkuntza, osasun eta lan eskubide gabeak, bortxatu eta isilduko. Eta dena sahararrak direlako, beraien lurra maitatu eta bertan bizitzen jarraitu nahi dutelako. Gure elkartasuna eskaintzen diogu hildakoaren senitate eta beste biktima guztiei. Ez dugu utziko Nayemen izena ahanzturan erortzen den beste bat gehiago izaten. Nahiz eta izen propioa duten zenbaitzuk herri hau zein bere arazoak ahazten saiatzen diren, gu ez gara isilduko! Ez da, espainiar gobernu ministro berriak esan duen bezala, lasai egoteko garaia, gure ahotsak goratu eta bat egiteko

garaia da. Utzi saharar herria bakean! Independentzia eta autodeterminazioa orain! Sahara askatu! Sahara *hurra!*

**Birginia Pozo Gonzalez**, Ya-lah Gazte Ekimenaren zinean.

### 'Existitu'

Azken bolada honetan, «existitu» gora, «existitu» behera... modan jarri da.

Adibidez:

*Gaur 8*, Gara-ren eranskinean (2010-VIII-27koan), 3. orrialdean, Gorka Elejabarrietak, *Terminologia* artikulu luzean, hiru aldiz agertzen da:

1- «Gatazka existitzen dela ziurtatzeko batzuek ...».

2- «ETAren indarkeria bakarrik existitu balitz bezala ...».

3- «(letra handitan) gatazka existitzen dela onartu gabe...».

Euskaraz oso ongi dakien Joseba Egibarrere berak ere, modari amore emanez, nonbait, hau idatzi zuen *BERRIAN* (2010-VIII-28an): «Lopezek nola defendituko Euskadi herri gisa existitzen denik ez badu sinesten?».

Goazen orain gure hiztegietera:

Larramendiren *Hiztegi* hirueledunear, (espainol / euskara), ed. 1853, bi liburukitan, lehenengoan, (1, 416 orr.) hau dator: Hau irakurtzen da: *existir*: izan, izandu, izatu.

R.M. Azkueren *Hiztegi*an, existitu ez dakar.

Aita Lhanderen *Hiztegi*an (euskara / frantsesa) existitu ez dakar.

Hiztegi berriagoetan, modan ez egoteko beldurrez, eta modari amore emanez, hau irakurtzen da:

Ibon Sarasolaren *Zehazki* Hiztegi bikainean: egon, izan (existitu).

Ethuyar Hiztegi: egon, izan, (existitu). Adorez Hiztegi: egon, izan, (existitu).

Hala ere, erraza da kontua:

—Existitzen dela: dagoela esaten da orain.

—Existituko balitz: baiegi esaten da orain.

Uste du, hitz batez, azkeneko urte hauetako *berrieria* hau baztertu beharra dagoela.

**Jose Luis Alvarez Enparantza**, 'Txillardegil', Idazlea (Donostia).

### www.berria.info

## Herri hau gogor joko dute, askatasuna geuk lortzen ez badugu

Espainiako Estatuak Batasuna legeztatuko duen? Bai zera! Euskal Herriko populuaeren gehiengoak beharko ditu zabaldu Espainiako Estatuak murriztutako askatasunaren oinarriak. Oso garrantzitsua da hori lortzea; bestela, kaltea handia izango da eta; herri honen askatasuna kolpatua izango delako gogor.

Larritik oraindik du herri honek ilegalizazioaren ondorioz kalte politikoak populuzati batentzat bakarrik dela sinesten badugu.

Alderdi politikoien legea euskaldunon askatasun behararen aurka ezarri zuten, nahiz eta, iturraz, zati batentzat dela aldarrikatu duten.

**Jeiki.**

## Alderdien legea geuk gainditu beharko dugu

Ez, ez digute utziko askatasunez eta kanpoko esku hartzerik gabe gure etorkizuna erabakitzen. Geuk lortu beharko dugu alderdien legea nolabait gaindiltzea. Eta Jose Luis Rodriguez Zapatero eta Ramon Jauregi Jaunek diotena diotela —orain ezker abertzalearen baitako mugimenduez mintzo baitira—, beren borondate guztia jarri dute alderdien legea blindatu ahal izateko.

Bestelako kontu bat da, ezker abertzalea legeztatzea ez bada lortzen. Eusko Alkartasunari ematea boza edo ez. Elektoraliki ez dakit ondo aterako zen horrelako egitasmo-rik...

**Iraultz.**